

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Behin betiko onartzea autokarabanentzako gune edo aparkalekua arautzen duen ordenantza

Bo170906A. Oiongo autokarabanentzako gune edo aparkalekua arautzen duen ordenantzaren behin betiko ezarpenaren espedientea jendaurrean egon den bitartean ez da erreklamaziorik aurkeztu. Jendaurreko aldiari hasiera emateko, 01500 zenbakiko iragarkia argitaratu zen 2017ko apirilaren 26ko ALHAOn, 47. zenbakian. Gainera, Oiongo Udalak behin betiko onartu du Oiongo autokarabanentzako gune edo aparkalekua arautzen duen ordenantza. Onartutako ordenantzaren testu osoa argitara ematen da, denek ezagut dezaten eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, ordenantzak indarrean iraungo du harik eta hura indargabetzea edo aldatzea berariaz erabakitzen den arte.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioarenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz.

Oion, 2017ko irailaren 5a

Alkatea

EDUARDO TERROBA

Oiongo autokarabanentzako gune edo aparkalekua arautzen duen ordenantzaren testu osoa. Erreferentzia alfanumerikoa: Idaz/OrdAduar1704

Zioen azalpena

Autokaraban ibiltzeko zaletasunak hazkunde oso garrantzitsua izan du, baina egungo egoerak, bera erregulatuko duen berariazko araurik gabe, interpretazio okerretarako bidea ematen du.

Esparru horretan, udalek garrantzi handiko eginkizuna dute; izan ere, lurzoruaren erabilera eta ordena finkatzen dituzte, lurzoruaren antolamenduaren arloko legeriek ematen dizkieten tresnen bidez, eta beren ardurapean dituzte ur hornidura, energia zerbitzua, herritarren segurtasuna, hiri mugikortasuna, garbiketa eta hondakinen tratamendua.

Iragaitzako autokarabanentzako atsedengune bereziak behar bezala mugatutako lursailak izango dira, aldi baterako okupaziorako hornituak eta atonduak, bidean atsedenaldea egin eta autokarabanetan metatutako hondakinak bertan hustu ahal izateko.

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea honako hau da: batetik, Oiongo autokarabanentzako gune edo aparkalekua arautzea, baliabideak babesteko, pertsonen segurtasuna bermatzeko, eta aparkaleku publikoak bide publikoen erabiltzaile guztien artean behar bezala txandakatu eta banatzeko; eta bestetik, kanpaldi librearen debekua, autonomia erkidegoko zein tokiko araudian jasorik dagoena, urratuko ez dela bermatzea.

Ordenantza honi dagokionez, autokarabanentzako gunee deitzen zaio Oiongo La Espina kalearen, Batzar Nagusien kalearen eta Caña las Abejas bidearen arteko kirol eremuan dagoen autokarabanentzako aparkalekuari.

Autokarabanentzako gunean aparkatzeko tokiak egongo dira, beren kontrolerako seinalez-tatuak; eta edateko uraren hornidura eta ur zikinak husteko zerbitzua ere egongo dira.

Informazio guztia Udalaren web orriaren bidez emango da.

2. artikulua

Oiongo udal mugartean kanpaldi librearen debekua urratzen duenari zehapena ezarriko zaio, salbu eta alde zurretik horretarako baimena lortzen denean.

3. artikulua

Kanpaldi libretzat joko da aterpe mugikorren bat instalatzea (karabana, autokarabana, kanpanda edo pareko elementuren bat, garraiatzen edo desmuntatzen erraza) kasuan kasuko lege eta erregelamenduetan araututako turismoko kanpamentuetatik kanpo.

Kanpatze elementutzat joko dira erraz garraiatu daitezkeen eta zimendurik ez duten elementuak. Kanpaldi libretzat joko dira, halaber, ordenantza honetan araututakoa baino egonaldi luzeagoak, bai eta udal zerbitzuen edo Alkatetzaren iritziz edozein udal ordenantzaren kontrakoak diren jarduerak ere.

4. artikulua. Aparkatzeko gunea erabiltzea

Honako erabilera arau hauek bete beharko dira autokarabanak aparkatzeko gunean:

1. Autokarabanentzako onartutako ibilgailuak edo etxebizitza-ibilgailu gisa homologatutako ibilgailuak bakarrik aparkatu ahal izango dira autokarabanak aparkatzeko gunean, eta baztertu egingo dira bestelako ibilgailuak, hala nola karabanak, furgonetak, kamioiak, turismo ibilgailuak edo motozikletak.

2. Autokarabanak aparkatzeko gunea, funtsean, doako instalazioa da erabiltzaile guztientzat. Hala ere, Udalak, nahi izanez gero, zerga ordenantza bat onartu ahal izango du, emandako zerbitzuaren truke erabiltzaileek ordaindu beharreko tasa arautuko duena.

3. Ibilgailuek uneoro errespetatuko dituzte aparkatzeko tokiaren mugak, lurreen marraztutakoak. Ezingo dute kanpora mahairik, aulkirik, olanarik, eguzkitakorik, estalkirik edo bestelakorik atera.

4. Gehienez 72 orduz egongo dira bertan, ibilgailua geratzen denetik hasi eta aparkatzeko tokia uzten den arte. Ezinbesteko kasuetan soilik, alde zurretik udal zerbitzuek txostena egin eta organo eskudunak baimena emanda, onartutako gehieneko egonaldi hori gainditu ahal izango da.

5. Autokarabanek eta antzeko ibilgailuek sortzen dituzten ur gris eta beltzak husteko espazio bat edukiko dute erabiltzaileek. Gainera, edateko uraren hargune bat edukiko dute. Leku horretan ezingo da aparkatu, erabiltzaileentzako lekua izango baita. Erabili eta gero, baldintza higieniko ahalik eta onenetan mantendu beharko dute.

Berariaz debekatuta egongo da, gainera, edozein ibilgailu garbitzea.

6. Erabiltzaileek ezingo dute zarata gogaikarrik egin. Debekatuta egongo da argindar sargailuak piztuta edukitzea atsedenerako orduetan (22:00 - 09:00 bitartean); edo egunez ere bai, baldin eta udal zerbitzuek luzaroegi piztuta egon direla irizten badiote.

7. Autokarabanentzako gunearen erabiltzaileek Udalak ematen dizkien jarraibide guztiak onartuko dituzte gunea zaindu eta mantentzeko eta udalerriko biztanleekin harreman begirunetsuak izateko.

8. Erabiltzaileok, era berean, Oiongo Udalarik kontsulta egin ahal izango diote autokarabanentzako gunearen inguruetan eskuragarri dituzten zerbitzuei buruz eta zerbitzu horiek erabiltzeko bete beharko dituzten baldintzei buruz.

9. Oiongo Udalak noiznahi baliatu ahal izango du autokarabanentzako gunea beste erabilera batzuetarako, eta ez die erabiltzaileei horregatik inolako kalte ordainik eman beharko.

10. Autokarabanentzako gunean ez da zaintzailerik egongo, eta Oiongo Udalak ez du erantzukizunik izango ibilgailuetan lapurreta edo kalteren bat edo antzeko gorabeheraren bat gertatzen bada. Alde horretatik, autokarabanentzako aparkaleku hori bide publikoan dagoen edozein aparkalekuren parekoa da.

11. Ezingo da autokarabanentzako gunean aparkatu Eskerrak Emateko Jaietan, hau da, abuztuan, azken asteazkenetik abuztuko azken astelehenera arte. Urtero web-orrian adieraziko dira jaietako egun zehatzak.

5. artikulua. Ikuskapena

Ordenantza honetako edozein artikuluren, edo ordenantza garatzeko Alkatetzak ematen dituen xedapenen, kontra egitea edo horiek ez betetzea arau haustea izango da; orduan toki korporazio honi egokituko zaio ikuskapen eta zehapen funtzio egokiak betetzea.

Segurtasun Indar eta Kidegoak edo berariaz ahalmena ematen zaien agenteak arduratuko dira ordenantza hau bete dadin.

6. artikulua. Eskumena eta zehatzeko prozedura

1.- Zehapen prozedura abiarazteko eta ebazteko eskumena duen organoa alkate udalburua izango da.

2.- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea-renak, ezartzen duenari jarraituz bideratuko da zehapen prozedura.

7. artikulua. Arau hausteak

1. Honako hauek arau hauste arintzat joko dira:

a) Ordenantza honen 4. artikuluan xedatutakoa urratuz autokarabanak aparkatzea, arau hausteak bide publikoan oztoporik sortzen ez duenean.

b) Aparkatzeko zonetako erreserbari dagokion tiketa haizetakoan bistan jartzeko betebeharra ez betetzea.

c) Noizbehinkako likido isurketa.

d) Autokarabanaren perimetrotik kanpo elementuak kokatzea, hala nola olanak, mahaiak, aulkiak, hanka nibelatzaileak etab.

e) Autokarabana adierazitakoa ez den noranzkoan kokatzea edo ibilgailu bakoitzarentzat mugatutako zonatik kanpo kokatzea.

f) Zarata gogaikarria egitea ezarritako ordutegitik kanpo, zaratari buruzko udal ordenantzaren edo arloko legerian ezarritakoaren arabera.

2. Honako hauek arau hauste larritzat joko dira:

a) Ordenantza arautzaile honen 4. artikuluan xedatutakoa urratuz autokarabanak aparkatzea, arau haustearen ondorioz bide publikoa oztopatzen delarik.

b) Soinu ekipamenduek egiten duten zarata kanpoaldera iristea.

c) Likidoak edo hiri hondakin solidoak isurtzea horretarako seinalatutako zonatik kanpo.

d) Aparkatzeko edo zerbitzuak erabiltzeko prezio publikoa egonez gero, prezio hori ordaindu izana ez frogatzea.

3. Honako hauek arau hauste oso larriak dira:

- a) Likidoak edo hiri hondakin solidoak isurtzea, nahita, horretarako seinalatutako tokietatik kanpo.
- b) Hiri tresneria hondatzea.
- c) Ibilgailuen trafikoa erabat oztopatzea, hori justifikatzeko ezinbesteko arrazoirik izan gabe.

8. artikulua. Zehapenak

1. Artikulu honetan tipifikatutako arau hausteek zehapen hauek izango dituzte:

- a) Arau hauste arinengatik, gehienez ere 100,00 euroko isuna ezarriko da.
- b) Arau hauste larriengatik, 300,00 euroko isuna ezarriko da gehienez ere, eta/edo zerbitzugunetik alde egin beharko da, kasua bada.
- c) Arau hauste oso larriengatik, 600,00 euroko isuna ezarriko da gehienez ere, eta/edo zerbitzugunetik alde egin beharko da, kasua bada.

2. Zehapenak honako irizpide hauen arabera mailakatuko dira, bereziki:

- a) Nahita egin den edota behin eta berriz egin den.
- b) Eragindako kalteak nolakoak diren.
- c) Mota bereko arau hauste bat baino gehiago egin den.
- d) Ibilgailuen eta pertsonen trafikoa edo zirkulazioa oztopatu den.

3. Isunak ezartzerakoan kontuan hartuko da, betiere, araua urratzea ez dela arau hauslearentzat onuragarriagoa izan behar araua betetzea baino.

Azken xedapen bakarra

Ordenantza hau indarrean jarriko da berau behin betiko onartzeko erabakia eta beronen testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean.